

NEKATUTA AL ZAUDE ENTZUTEN...

ODOLAK IRAKITEN AL DIZU
ZURRUMURRU XENOFOBOAK
ETA ARRAZISTAK ENTZUTEN DITUZUNEAN?

NI EZ NAIZ
ARRAZISTA...BAINA...



"ZURRUMURRUEN AURKAKO"
ESTRATEGIAK ETA ARGUDIOAK
"ETORKINAK LAGUNTZETATIK BIZI DIRA"
"LAGUNTZAK KENTZEN DIZKIGUTE"



EZJAKINTASUNAK, OROKORTZEAK, DISKURTSO ARRAZISTAK ETA XENOFOBOAK SORTZEN DITUZTE

ESTEREOTIPOAK
(PENTSATZEN DUGUNA)

AURREIRITZIAK
(SENTITZEN DUGUNA)

ZURRUMURRUAK
(ESATEN DUGUNA)

DISKRIMINAZIOAK
(EGITEN DUGUNA)

“Kanpotarrak dirulaguntza guztiekin etortzen dira” (...)
“Nik esaten diet: niri ere estatutuko litzaidake zu bezala bititzea”

“EZ BALEUDE” BEZALA JOKATUKO AL DUZU?

DISKRIMINAZIO BITURTZEA ONARTUKO AL DUZU?

EDO NANTIAGO DUZU “DESAKTIBATU” DISKRIMINAZIOA SAHETSEKO ETA ELKARBIZITZA ERRAZTEKO?

...BAINA... NOLA “DESAKTIBATU” DEZAKET ZURRUMURRU BAT?
HASTEKO ERABILI ESTRATEGIA HAUEK!!!

BILATU HARREMAN KOMUNAK ETA MANTENDU JARRERA
ETA DISKURTSO POSITIBOAK!!!

Guztiok izaten ditugu aurreiritziak eta estereotipoak, sarritan gure beldurrekin eta kezkekin lotura izaten dutenak. Saihestu beste pertsona bat barregarri uztea edo hura erasotua edo mindua sentitzea. Soilik horrela eraiki dezakegu

elkarrizketa konstruktibo bat, zurrumuru bat “desaktibatuko” aukera emango diguna.

NIK ERE
ENTZUN DUT, BAINA
PENTSATU NUEN...

ULERTZEN DUT ZURE
EGOERA, BAINA BENETAN
USTE DUZU
HORI DELA ARAZOA?...

NORK
ESAN DIZU?

SAIHESTU PRESAKA IBILTZEA, GALDERAK
EGIN, EMAN BIDEA JAKIN-MINARI
ETA SUSTATU IZPIRITU KRITIKOAK!!!

NON
ENTZUN DUZU
HORI?

Momentu batean zurrumurru bat "desak-
tibatuta" ahal izango duzula pentsatzea ez da zuzena. Per-
tsona batek zerbait zalantzan jartzea lortzen baduzu jadanik
arrakasta itzela da eta gainera, zure iritzia zuzenean inposatzen saiatzea baina
eraginkorragoa izango da.

ZIUR
AL ZAUDE HORI
HORRELA DELA?

BERTAKOOK
ENTZIERROAN LASTER EGITEN
DUGU ETA SANGRIA EDATEN
DUGU?

ZALANTZAN JARRI
OROKORTZEAK!!!

PERTSONA BATENGATIK
"DENEK" ORDAINDU
BEHAR AL DUTE?

Galdetu kasu zehatz batek kole-
ktibo osoa identifikatzen duen
edota egoera zein jarrera zehatz
baten arrazoiak pertsona bati soilik dagozkion, edo-
ta tartean bestelako arrazoiak dauden (pertsonalak,
sozio-ekonomikoak, politikoak, legezkoak, etab.)

ZEIN DA ARAZOA,
"GERTATU DENA" EDO
"KANPOKOA IZATEA"?

HORRELA LORTUKO DUZU ELKARRIZKETA BAT IZATEA
"ROLLO TXARRIK GABE" ZURRUMURRU HORI ZABALDU DUEN PERTSONAREKIN!

...ETA HALABER ONDORENGO GALDERAK ETA ARGUDIOAK ERABIL DITZAKEZU!!!



"ETORKINAK LAGUNTZETATIK BIZI DIRA" "LAGUNTZAK KENTZEN DIZKIGUTE"

Hori esaten duena "ziurtatzen ari da" pertsona atzerritarrak:

- Nahiago dutela laguntzetatik bizi lana eginez baino.
- Lehenetsuna dutela atzerritarrak izateagatik diru-laguntzak izateko.
- Eskubide gehiago dituztela "hemengo" pertsonak baino.
- Hemen soilik lanerako egon beharko liratekeela, baina ez luketeela laguntzarik edo prestaziorik jaso beharko.
- Prestazio eta laguntza publikoez abusatzen dutela.

Adierazpen horiek zalantzan jartzeko, ondorengo galderak egin ditzazkegu:

- Zergatik uste duzu pertsona batek bere lurra eta jendea utziko lituzkeela?
- Ba al zenekien egoitza baimenak ("paperak") laneko kontratua izatearen arabera ematen direla?
- Ba al zenekien gizarte laguntzak eta prestazioak ez direla inoiz zure nazionalitatearen edo jatorriaren arabekoak izaten?
- Ezagutzen al duzu atzerriko pertsona ugariren errealtatea nolakoa den?
- Zer nahiago duzu, "lehenengo eta bigarren mailako pertsonak" dakartzan gizarte bat edo aitzitik eskubide berdinak dituzten pertsonekin osatutakoa?
- Pentsiodun bat bere pentsioaz abusatzen ari dela esango al zenuke?



GALDERA HORIEK ABIAPUNTUTZAT HARTUTA, ZURRUMURRU HORI DESMUNTATZEKO ONDORENGO ARGUDIOAK ERABILI AHAL IZANGO DITUGU:

1. Benetan uste al duzu pertsona batek gizarte laguntzetatik eta prestaziotatik bizitzeko migratzen duela?

Pertsonak bizi aukerak hobetzeko migratzen dute, ez gizarte laguntzetatik bizitzeko. Pentsatu hemendik beste herrialde batzuetara migratzen duten pertsonekin, Zergatik egiten dute?

Proiektu migratzaileak (banakakoak, familiakoak edo kolektiboak), arazoak alde batera utzita (ekonomikoak, gerrak, pertsekuzio politikoa edo soziala, babesgabetasuna, klima aldaketa, etab.) bizi aukerak eta baldintzak hobetzeko egiten dira.

2. Ba al zenekien egoitza baimenak ("paperak) lan-kontrata izatearen arabera direla?

Egoitza baimena eskuratzeko eta mantentzeko ezinbestekoa da lan-kontratu baten jabe izatea (horregatik dago immigrazio gehiago lan aukera gehiago daude tokietan eta ez gizarte laguntza gehien dau den haietan).

- Bizitza berri hori eraikitzeko, migratzea erabakitzen duten pertsona guztientzat helburu nagusia dagokion helmugan enplegu bat aurkitzea izaten da. Helburu horiek guztiak ezin dira lortu gizarte laguntzetatik "bizirauten", aldiz diru-sarrerak" eta enplegu batek dakarren segurtasuna ezinbestekoak izaten dira. Nahikoa da hemendik Europako edo munduko beste herrialde batzuetara hemen aurkitzen ez dituzten aukeren bila joaten diren gazteekin pentsatzea. Errealitate hori beste herrialde batzuetatik hona bizitzera eta lanera etortzen diren beste pertsonena bezalakoa da, horien jatorria, etnia, arraza, kultura edo erlijioa edozein dela ere.
- Pertsona gehienak (jatorria alde batera utzita), euren lanetik bizi dira. Salbuespenak daude, baina aparteko kasuak dira. Gainera, gizarte laguntzen edo prestazioen eraginez ""deiaeren efektua" balego, laguntza gehiagoko tokietan immigrazioa nabarmenki ugartuko litzateke, baina kontua da immigrazioa nabarmenagoa



dela enplegu aukera gehiago dagoen tokietan.


- Atzerriko pertsona batek bere egoera “erregularizatzeko” eskatu behar dituen egoitza eta laneko baimenak (“alegia “paperak”) erabat lan-kontratuaren mendean daude (derrigorrezko epe minimoa urte betekoa izanik). Gainera, kontratuak berritzeko lanean eta gizarte segurantzarekin kotizatzen gutxienez 6 hilabete eman behar izaten dira, SMI-LGS gainditzen duena soldata batekin. Eta ez hori bakarrik, zeren zure familiarekin biltzeko (bikotea, seme-alabak) baldintza berdinak bete behar dituzu eta egiaztatu etxebizitza hala nola behar adinako diru-sarrerak dituzula.

3.Ba al zenekien gizarte laguntzak eta prestazioak ez direla inoiz zure nazionalitatearen eta jatorriaren arabera izaten?

Inork ez du gizarte laguntzarik edo prestaziorik jasotzen “etorkina” izateagatik. Gizarte laguntzak eta prestazioak pertsona bakoitzaren ekonomia eta lan egoeraren arabera izaten dira.

Gizartean dauden desberdintasunak jasaten dituzten pertsonentzat gizarte kohesioa eta bizi-baldintza minimoak bermatzeko bitartekoa izaten dira.

- Gizarte laguntzak eta prestazioak eskuratzeko aukera eskatzen duten pertsonen edo familien egoera sozio-ekonomikoaren arabera izaten da. Laguntza horien helburua da babesgabetasun edo gizarte kanporaketa arrisku egoeran dauden familientzat edo pertsonentzat diru-sarrera eta bizi-baldintza “minimoak” bermatzea. Horregatik, baldintza horiek betetzen dituen edozein pertsonak edo familiak horiek eskura ditzake, bere jatorria edo nazionalitatea alde batera utzita.
- Gizarte laguntzak eta prestazioak eskuratzeko eta mantentzeko aukera irizpide sozio-ekonomiko hauen bidez erregulatzen da, eta inoiz ez jatorria edo nazionalitatearen arabera, gizarte zerbitzuetako profesionalek kontrolatu izaten dute, dagokion pertsonari soilik emateko eta balizko iruzurrak saihesteko.
- Beraz, alde batetik, gizarte zerbitzuek, laguntzek eta prestazioek gizarte desberdintasunak zuzentzea ahalbidetzen dute. Bana bestetik, ez dira “perfektuak”, hau da, ez dira behar duten pertso-




na guztiengana heltzen, eta ez daude iruzur ahalegin guztietatik babestuta. Baina agerikoa da gizarte kohesioa sendotzeko baliagarriak direla, eta iruzurren kasuak minimoak direla edota inoiz jatorri edo nazionalitate zehatz batekin loturarik izaten ez dutela.

- Adibide modura Errenta Bermatua aipa genezake, Nafarroako gizarte prestazio zehatz bat (beste erkidego batzuetan honen antzeko laguntzekin kontatu izan arren). Prestazio honen helburua da gizarteratzeko eskubidea eta babesgabetasun edo gizarte kanporaketa egoeran aurkitzen diren pertsonen arreta bermatzea. Oinarrizko prestazio ekonomikoa eta aldizkakoa da, euren oinarrizko beharrak estali gabe dituzten eta aurreikusitako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonentzat edo familia unitateentzat bideratua: Behar adina diru-sarrera edo ondarearen gabezia, Nafarroan bizitzea gutxienez 2 urteko epean (edo urte betez adingabeen arduradunak duten familia unitateen kasuan), Nafarroan bizitzea prestazioa jasotzen den epean, enplegu egokiarekin lotutako eskaintzetarako eskuragarri mantentzea eta prestazio hau jasotzeko aukera ematen dioten baldintzen aldaketak jakinaraztea.
- Gizarte laguntza eta prestazio hauek guztiak behar sozio-ekonomiko zehatzak dituzten pertsonak jasotzen dituzte, horien jatorria edo nazionalitatea edozein dela ere. Baina halaber egia da atzerriko pertsona ugari, arrazoi eta zirkunstantzia ezberdinengatik, babesgabetasun ekonomiko eta gizarte kanporaketa egoerak bizitzeko arrisku gehiagorekin topatzen direla, ezagutzen al duzu errealitate hori?

4. Ezagutzen al duzu atzerriko pertsona ugariren errealitatea?

Nazioarteko mailan pertsona guztien berdintasuna aldarrikatu izan arren, atzerriko pertsonak (baita hemen jaiotako euren seme-alabek ere), gizarte eta erakunde mailako diskriminazioak jasaten dituzte, horrela agerikoa izanik pertsona "autoktonoen" aldean bere eskubideak, aukerak eta baldintzak murriztuta daudela.

- Alde batetik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean mugimendu askearen eskubidea aipatzen da, baita pertsona guztien arteko berdintasuna ere (arrazta, kolorea, sexua, erlijioa edota iritzi



politikoa alde batera utzita). Bestetik, gizarte zerbitzuen eskuragarritasuna europar estatuetakoa autonomia araudietan jasotako eskubide bat da. (Adibidez, 41. artikuluan, Espainiako Konstituzioak legeen aurrean berdintasuna eta hiritar guztientzako gizarte segurantzaren zerbitzua defendatzen dira).

- Hala ere, atzerriko pertsonen kontrako erakunde-/lege arloetan ageriko diskriminazioak daude, estatuko eta erkidegoetako migrazio politikak direla medio (esaterako atzerritartasun legea Espainiako Estatuan edota “bat-bateko itzultzeen” legezkotasuna), hala nola beste lege batzuk (esaterako osasun eskubidearen murrizketa), “sarekada arrazistak” bezalako politikak eta jarduerak. Eta horri guztiari erantsi behar zaizkio gure egunerokotasunean gure aurriritziekin eta zurrumurruekin (mesfidantza, kontaktu gabezia,...) eraikitzen ditugun gizarte barrerak edota zuzenean egoten ditugun diskriminazioak (ez alokatzea etorkinei, baldintza okerrekin kontratatzen ditut...).
- Baina horrez gainera, etorkinak edo atzerritarrak sarritan babesgabetasun ekonomiko eta pertsonal larriaren eraginpean aurkitu izaten dira, euren migrazio prozesuaren kostu ekonomiko eta pertsonala, egoitza eta lan baimenak lortzeko eta mantentzeko prozesuak, gizarte eta erakunde mailako gizarte loturen eta baliabideen berri ez izatea, ikasketak konbalidatzeko zailtasunak edo familia edota lagun saretan euren adingabeen babesgabetasuna direla medio. Zirkunstantzia horien ondorioz pobrezia edo gizarte kanporaketa arrisku maila larritu egiten da, eta ez norbere borondatez, baizik eta aurre egin beharreko zailtasun ekonomikoak eta pertsonalak gehiegizkoak direlako.
- Ondorioz, ba al du zentzurik esatea atzerriko pertsonen “hemen-goek” baino eskubide gehiago dituztela?


5. “Lehen eta bigarren mailako” pertsonekin osatutako gizarte nahi al duzu edo eskubide berdinak dituzten pertsonekin osatutakoa?

Ongizatearen Egoera hemen bizi eta lan egiten dugun pertsona guztiontzako eskubide bat da, guztiok ordaintzen ditugun zergekin (esaterako PFEZ edo BEZ) eta gizarte kohesioa babesten du.

6. Zure ustean pentsiodun batek bere pentsioaz abusatzen al du?

Ez da inolako kasutan salatzen pentsiodun batek bere pentsioez abusatzen duenik eta bestalde, "abusu" nabarmenenak "goitik" egiten dira (iruzur fiskala, korrupzio politikoa, etab.).

- Arestian planteatutako jatorri edo nazionalitate mailako desberdintasunak eta diskriminazioak alde batera utzita, azpimarragarria da gizarte zerbitzu, laguntza eta prestazioen eskuragarritasunerako eskubidea jasota dagoela europar estatuetako autonomia araudietan.
- Alde batetik, EB-ko arauen arabera, debekatuta daude edonolako diskriminazioak sexua, erlijioa, jatorria, ertia edo arraza, minusbaliotasuna, sexu orientabidea edo sinesmenak kontuan hartuta. (EB-ko eskubide nagusien Gutuneko 10, 19, 20 eta 21 Artikuluak). Bestalde, Espainiako Atzerriartasun Legean (4/2000 Lege Organikoa) adierazten da Espainian bizi diren atzerriko pertsonak "eskubidea izango dutela gizarte zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko, bai orokorrak eta bai oinarrizkoak edota bereziak, espainiarren baldintza berdinekin. Atzeritarrek, euren administrazio egoera edonolakoa dela ere, eskubidea dute oinarrizko gizarte zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko".
- Era berean, kontuan hartu behar dugu zerbitzu. Laguntza eta prestazio publikoak gizarte kotizazioekin eta zergekin (PFEZ bezalako zuzenak eta BEZ bezalako zeharkakoak) ordaintzen direla, eta hemen bizi garen guztiok ordaintzen ditugula. Hemen bizi garen guztiok horien onuradunak izateko eskubidea izanik, aldi berean horiek finantzatzeko ekarpena egiten dugu. Zertarako zailtzan jarri pertsona batzuen gizarte laguntzak eta prestazioak edota horiek jasotzeko eskubideak, jatorria edo nazionalitatea kontuan hartuta?
- Zentzu honetan, eskubide horiek murrizten ahalegindu eta "batzuen" eta "besteon" arteko lehia modura planteatu ordez, guztiok onuradunak izango ginateke eskubide horiek pertsona guztientzat eraginkorrak izateko, gure gizartean gertatzen diren diskriminazio mota guztiak eteteko eta gizarte prestazio zein laguntzen neurri handi bat beharrezkoak izatea eragiten duten desberdinta-



sun sozio-ekonomikoak behingoa amaitzeko borroka egiteaz arduratuko bagina. Ia inork ez du zalantzan jartzen edozein pertsonak behar adinako erretiro pentsioa jasotzeko eskubidea izaten duela. Zergatik zalantzan jarri orduan bestelako gizarte zerbitzu, laguntza eta prestazioak?. Eta baliabideak mugatuak direla edo "guztiontzat ez dagoela" esaten dutenei gogorarazi ahal diegu non gertatu izaten diren baliabideen gabezia eragiten duten iruzur nagusiak (enpresa handietako iruzur fiskala, korrupzio politikoa, etab.).